

KANALAK:

Mirror Vision bezeroengana helarazteko, estrategia ezberdinak erabiliko ditugu kanal desberdinetan: Lehenik eta behin, pertsona famatuei bidaliko diegu produktua, influencer-ei hain zuzen ere. Haiek Mirror Vision probatu eta haien sare sozialetan erakusteko eskatuko diegu. Horrela, jende askok ezagutuko du gure produktua. Instagram eta tik tok kontu bat zabaldu dugu gure iragarkiak, argazkiak... erakusteko. Bigarrenik, iragarkiak egingo ditugu sare sozialetan, webguneetan eta, ahal bada, telebistan. Iragarki erakargarriak izango dira, Mirror Vision-en abantailak erakutsiz eta jendea erakarriz. Hirugarrenik, teknologia eta modako enpresei aurkeztuko diegu Mirror Vision. Beste enpresekin elkarlanean aritzeko aukerak bilatuko ditugu, adibidez, modako denda batean Mirror Vision jartzea. Azkenik, TikTok bat egingo dugu. Bideo dibertigarriak eta originalak sortuko ditugu TikTok-en, Mirror Vision-en erabilera erakutsiz. Challenge-ak eta beste gauza interesgarriak egingo ditugu, jendeak parte hartu dezan eta Mirror Vision probatzeko gogoia izan dezaten.

